

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Euroaren kanpaina

Asier Larrinaga • BILBO

Erretzen hasi nintzenean Ducados paketeak 18 pezeta balio zuen. Zenbat euro dira? Egon: 1.000 pezeta 6 euro badira, zati 18, bururako 2, bider 6, koma 4... Zer arraiotarako jakin nahi dut hainbeste pezeta zenbat euro diren?! Nork pentsatu du 1.000 pezeta 6 euro direla jakin nahi dudala? Nori otu zaio eraginkorra dela lehengo dirua gogoan izatea, diru berria esku artean erabiltzen hasten garenean? Nik neuk, beste era bateko jakingariak eskertuko nituzke euroaren publizitate kanpainetan: egunkariak 0,75 euro balioko duela; 7 euro inguru ordaindu beharko dudala eguneko menua jan nahi badut; 5.000 euro dirutza handia dela, kopuru biribila, etxe baten edo auto baten prezioari tamaina hartze-

ko erreferentzia baliagarria. Antza denez, baten batek pentsatu du ez garena pertsona helduak eta, horrenbestez, umeei bezala hitz egin behar digutela. Ea, ba, Epirekin batera denok (adurra darigula): bat, Martin tarrat; bi, Martin ipurdi; hiru, kolkoa bete diru; lau, katuak jango ahal hau...

'Argia' astero, aspalditik gure artean

Tomas Angel Gonzalez Zabalbeitia • ABANTO

Euskal Herri honetan gauza xumeak baina aldi berean oso duinak egiten dira. Ez bakarrik garapenari begira, baizik eta kulturari eta informazioari ere, ekoizpen handia izatera heltzen ez den arren. Atal garrantzitsu hone-

tan *Argia* kazeta leku nagusienetarikoa batean kokatu behar dugu. Ibilbide luzea burutu ondoren, egun gure errealitatearen lekuko saihestezina dugu. Erakutsitako lanari erdugarria deritzot, belaunaldiz belaunaldi ekaitz guztien gainetik edo azpitik bizirik dirau eta, askotan baldintza arraz zailetan.

Aldizkari honen inguruan Euskadin zerbait aipagarri idatzi dutenen artean bildu dira idazle euskaltzale guztiak lehenago edo beranduago ezinbesteko eta behar-beharrezko bilgunetzat hartuz. Guk ere ahal dugun neurrian adibide hau alde edo moldez biderkatu beharko genuke beste batzuk ager daitezkeen erdal komunikabide erraldoiez inguratuta lehia basatien bizi baita. Gainera gero eta zailago begitantzen zait kultura ikuspuntu kritikotik lantzea. Meritu hori bado gure aldizkari preziatu honek, sasi kultu-

rak, zaborrak gora egiten duenean merkatu itogarri. Dena den *Argiak* orain arte ñabar-dura askoren artean erakutsi ditu kohesioa, koherentzia, kalitatea eta indarra irizpide zabal batengatik ondo pentsatuta, bere edukia ahalik eta emankorren izan dadin, dituen orrietan luze eta sakon eztabaidatzeko *Larrun* gehigarrian ikus dezakegunez hilerro, lan benetan aipagarria eta izendagarria burutuz.

Zuzenketa:

Atzoko alean bi akats egon ziren. Batetik, Iritzia sailean iratxoaren eraginez, azalpen gidoien ordez galdera ikurrak agertu ziren Jose Inazio Basterretxearen artikuluan, eta horrek zaildu egin zuen ulergarritasuna. Bestetik, Agenda saileko *argitalpena* ez zen era zuzenean kaleratu. *Maxizatzen* aldizkaria aipatu zen lekuan, *Kontzejupetik* esan beharra zegoen. Barkamenak beraz, aldizkari biei, Basterretxeari zein irakurleei.

montxo



galdeiozu... ?



Makina bar jende bada inoiz libururik irakurtzen ez duena. Zer esango zenioke horrelako pertsona bati irakurzaletasuna sor dakion?

Maritxu Jauregi (Bilbo)

IXIAR ROZAS

Idazlea

Askotan parekatu da irakurketa bidaia batekin. Nik askoz gehiago dela esango nuke: irakurtzen duena bi aldiz bizi da, beste errealitate bat eraikitzen duelako edo eraikitzeko aukera duelako. Irakurtzeak, gainera, pentsamendua eta ulermena zabaltzen ditu. Inguratzen gaituen guztia hain nahasia denean, denbora gerarazi eta hausnartzeko beta ematen du irakurtzeak; gertatzen ari dena ulertzen lagun diezaguke. Internetaren eta irudiaren aroan, liburuaren biziraupena zalantzan jartzen den aro honetan, beti izango dugu, zorionez, hitzarekin inguratzen gaituen egunerokotasunetik harat joateko beharra.

Azaroaren 20tik aurrera **Martin Fiz** • atleta izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

hirusta



Xabier Gantzarain

Bi kulturen arteko zubia

Zutabe guztietan gauza bera esaten ari ote naizenaren susmoak gaina hartzen dit batzuetan. Baina ezin dut ahaztu J.ren mutilak Atxaga ez zuela ezagutzen esan zidanean nire barne zutabeak kolokan jarri zirenekoa.

1993ko udara zen eta Pepo, Sutsu eta hirurok Londonera joan ginen. Galego baten etxean hartu genuen ostatu, eta poztu egin ginen handik egun batzuetara donostiar batzuk etortzekoak zirela esan zigunean. Orduantxe lehen diskoa grabatu zuten *La Buena Vida* taldekoak ziren bi, J.ren mutila eta bere anaia. Masterra entzun eta berriketan egin genuen ferryan erositako botila luzatuz elkarrri. Irakurle amorratuak ez baina literatura zaleak bazirela esan ziguten. Nik,

herriatik sekula atera gabeko mukizu euskaldunak, Atxaga ezagutzen ote zuen galdetu nion J.ren mutilari, eta nire harri-durarako, ezetz erantzun zidan. Atxaga, ordurako, euskal idazleetan ezagunena zen. *Obabakoak* anitz hizkuntzetara itzulita zen. Bi kulturen arteko zubia nork bonbardatu ote zuen galdetu nion neure buruari.

Aurreko igandean, berriz, Xabier Montoiak kontzertua eman zuen Eibarren. Gutxi ginen entzuleak. Eta kontzertua bukatu ostean, kezka bera neukan. Europako hizkuntzarik zaharrena eta sukaldaritzatik bikaina dituen herri bateko jendilaje exotikoa baino zerbait gehiago izango al gara inoiz? Nola eraiki behar da bi kulturen arteko zubia? Eta nork eraiki behar du?